

GAZTEAK ON

Leihaketaren Oinarriak

ZER DA GAZTEAK ON: ELIKADURA ERRONKA?

Etorkizuneko elikadura bertakoa, ekologiko eta osasuntsua izan dadin Bidasoaldeko gazteek dituzten ideia, proiektu eta egitasmoak erakusteko **bideoen lehiaketa** bat da. Lehiaketa honen helburuak ideia horiek bideo formatuan jaso, ikasleen arteko ideiak trukatu eta herritar ororentzako sentsibilizazio ekintza gisa zabaltzea dira.

ZEINEK PARTE HAR DEZAKE?

Bidasoaldeko derrigorrezko bigarren hezkuntza edota kolejiaren adin tartean dauden gazteei zuzendutako lehiaketa da.

- Talde parte hartzaile bakoitzak irakasle edo hezitzaile erreferente bat izango du.
- Ikastetxe edo ikasgune bakoitzak nahi adina talde aurkezterik izango du.
- Talde bakoitzak lan bakar bat aurkezteko aukera izango du.
- Irakasle edo hezitzaile erreferente bakoitzak talde bat baino gehiagoren ardura izan dezake.

NOLA PARTE HARTU?

Talde parte hartzaile bakoitzak bideo bat grabatu beharko du. Taldeak lantzen ari den proiektu bat, sortu nahi duen egitasmo bat edo garatu nahi duen ideia bat erakusteko.

Parte hartzeko prozedura 5 fasetan banatuta egongo da eta honakoa izango da:

- 0. Fasea - Izen ematea:** 2024-10-01tik 2024-12-31 bitarte. Izena emateko www.gazteakon.eus webguneko izen emate fitxa bete beharko da.
- 1. Fasea - Bideoen aurkezpena:** 2025-01-01tik 2025-04-11 bitarte. Bideoa aurkezpen fitxarekin (web-ean eskuragai) WeTransfer bidez bideoak@gazteakon.eus helbidera bidali beharko dira. Fitxa honetan bideoaren izenburua eta deskribapena hiru hizkuntzetan jasoko dira.
- 2. Fasea - Bideoen azterketa:** 2025-04-12tik 2025-05-04 bitarte. Ebaluazio Batzordea arduratuko da proiektu bakoitza aztertzeaz. Irizpide guztiak betetzen dituzten proiektuak baino ez dira kontuan hartuko.
- 3. Fasea - Proiektuen bozketa:** 2025-05-05tik 2025-05-25 bitarte. Herritarren saria aukeratzeko bozka sistema ireki bat egongo da. Bozka emaile bakoitzak aurkeztutako bideoen artean 3 bideori bozka eman beharko dio. Fase honetan zehar, epai-mahaiak, dokumentu honetan aurkeztutako balorazio irizpideak jarraituz, epai-mahaiaren saria aukeratuko du.
- 4. Fasea - Emaitzen argitaratzea:** 2025-05-30ean. Saritutako bideoen emaitza www.gazteakon.eus webgunean argitaratuko da.
- 5. Fasea - Sarien gauzatzea:** 2025-10-31 bitarte. Sariak adostu eta gauzatzeko epea bost hilabetekoa izango da.

GAZTEAK ON

Leihaketaren Oinarriak

BIDEOAREN EZALIGARRI TEKNIKOAK

- **Denbora:** 30 segundo eta 2 minutu bitarteko luzapena.
- **Formatua:** Bideoak horizontalean grabatuta izan beharko du (formatu posibleak .avi, mpeg...).
- **Hizkuntza:** Eskualdeko hiru hizkuntzak islaturik egon beharko dira lan bakoitzean. Azpigituluak erabiltzea edota hizkuntza ezberdinetan hitzak edo esaldiak erabiltzea gomendatzen da.

SARIAK

Sariak talde irabazleak ordezkatzeko erakundearentzako izango dira, ikastetxe edo gunearen elikadura burujabetza hobetzeko instalazio izaera izango du eta erakundearekin batera adostuko da. Lehiaketa honek bi sari izango ditu:

- **Epai-mahaiaren Saria:** 600 euroko balioa izango du. Epai-mahaia elikadura burujabetzaren arloan diharduten profesional eta teknikariek osatuta egongo da. Beherago jasotzen diren irizpideak kontuan hartuko dira lanen baloraziorako.
- **Herritarren Saria:** 400 euroko balioa izango du. Bozka prozesu parte hartzaile batetik aterako da saritutako lana.

BALORAZIO IRIZPIDEAK

Epai-mahaiak bideoak baloratzeko honako irizpideak kontuan hartuko ditu:

- **Originaltasuna:** Ekimena berria izatea, hau da, ideia, proiektu edo ekimena originala izatea.
- **Ikastetxearekiko / Hezigunearekiko inpaktua irudikatzea:** Bideoan kontatzen dena, taldearentzako edota gelarentzako ez ezik ikastetxearentzako edo hezigunearentzako onura bat izatea.
- **Hizkuntzen erabilera:** Eskualdeko hiru hizkuntzek presentzia izan beharko dute lanean. Euskara, eskualdeko hizkuntza amankomuna denez, euskararen presentzia baloratuko da.
- **Bideoaren kalitatea:** Irudiaren kalitatea, gidoiaren koherentzia...
- **Errepikagarritasuna:** Bideoak proposatzen duen ideia beste testuinguru batean egingarria izatea.
- **Inpaktu komunitarioa:** Bideoan kontatzen dena, ikastetxe edo hezigunearentzako ez ezik gunetik kanpoko inpaktu edo onura bat izatea.

IRUDIEN ERABILERARAKO BAIMENA

Lehiaketa honetan partehartzen duten bideoak GAZTEAK ON webgunean, Instagram eta Facebook sareetan erakusgai egongo dira. Hezitzaile erreferentearen ardura izango da partehartzaile guztiak informatzea eta baimenak jasotzea.